

EZKIO-ITSASO / 'Txakur bat ezkutatuta' antzelanak arrakasta handia izan zuen

EZKIO-ITSASO. DV. Ostiralean arra-tsaldeko 6:30ean Kontrapuntu bikoteak antzeztutako lana ikusteko aukera egon zen Santa Lutzia auzoko kultur etxean, liburutegiak eta Udalak antolaturik. Jende ugari hurbildu zen bertara eta arratsalde dotorea pasatzeko aukera izan zuten.

Antzerkia hasi baino lehen umeez liburutegian jolastu zuten, baina ordua heldu bezain laster onodoko gelara hurbildu eta Txakur bat ezkutatuta antzezlanak ikusteko aukera izan zuten. 40 lagun inguru bildu ziren ostiralean liburutegian eta barra gogotxuak egin zituzten.

Antzelana mutua zen, baina soinuez eta pianoaren doinuaz laguntzen zioten. Benetan dibertigarria eta polita suertatu zen lana eta umeez gogoz parte hartu zuten.

Esan beharrekoa da Donostiako bikote honek Asvinenean, Adunako arte eszenikoen laborategian, poltsikoko antzerki-lehiaketan epaimahaiaren saria irabazi zuela clown oinarria den obra honekin.

Lana ez zen oso luzea izan, ordu erdi baino pixka bat gehiago iraun zuelarik. Baina hau amaitu bezain laster, eta zen ordua ikusita, askaria prestatuta zegoen liburutegian, eta denok batera sabela bete eta lagunartean egoteko aukera izan zuten, bai txiki bai helduak ere.